



ARAUTEGIA

HERRI KIROLAK 2014

Eusko Jaurlaritzaren Kirol Zuzendaritzak EUSKADIKO XXXIII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOEN ekitaldia antolatuko du, Euskadiko Herri Kirol Federazioekin lankidetzan, 2014ko maiatzaren 25ean Gasteizko Campillo kiroldegian (Araba). Hauxe duzue jokoaren araudia:

1. PARTAIDETZA

Partaidetza bi mailatan emango da:

Infantil mailako Euskadiko txapelketa: 2000 eta 2001 urteetan jaiotako kirolarien partaidetzarekin

Alebin mailako Topaketak: 2002 eta 2003 urteetan jaiotako kirolarien partaidetzarekin
Lurralde eta kategoria bakoitzeko 3 talde gonbidatuko dira.

2. TALDEEN OSAERA

Ikastetxeetako taldeek bete beharreko arauak:

- a) Taldeek 10 eta 15 neska mutil bitartean izan beharko dituzte.
- b) Erabiliko den materiala kategoria bakoitzari egokituko zaio.

3. JOKU SISTEMA

Infantil mailako talde bakoitzak bost jokotan hartuko du parte: sokatira, lokotx bilketa, zaku erute, giza proba eta txingak.

Alebin mailako talde bakoitzak 4 jokotan hartuko du parte: sokatira, lokotx bilketa, zaku erute eta txingak

Proba hauez gain urtean zehar Euskal Autonomi Elkarteko, gutxienez, bi lurraldetan beste probaren batean partaidetza nahiko egongo balitz, modalitate horren Euskadiko Txapelketa ere deituko genuke.

4. SAILKAPENA

Puntuka izango da. Proba bakoitzean, lortutako sailkapenaren arabera banatuko dira puntuak: lehenengoari 3 puntu, bigarrenari 2 eta hirugarrenari 1. Puntu gehien lortzen duen taldea irabazlea izango da.

5. PROBAK

Zirkuitu erara egingo dira probak; talde guztiak aldi berean parte hartuz. Taldeak bi multzotan sailkatuko dira eta horrela jokatu dute proga guztien zehar.

- Sokatira:

- Tiraldi bakoitzean talde bakoitzeko 8 neska mutilek hartuko dute parte.
- Talde bakoitzaren aurka bi tiraldi egingo dira.
- Gutxienez 2 tiraldi hauetako batean, taldekide guztiek hartuko dute parte.
- Berdinketarik gertatuz gero denbora laburrenean irabazi duen taldea hartuko da irabazletzat.
- Finalurrekoak eta finalak jokatu dira.

- Lokotx bilketa:

- Taldekide guztiek parte hartzea derrigorrezkoa da.
- Talde bakoitzak bere abiapuntu eta helmuga izango du. Toki bakoitzean federazioko arduradun bat egongo da.
- Talde bakoitzak, lurrean binaka jarritako 30 lokotx jaso beharko ditu eta saskian utzi, gero berriz saskitik atera eta bere tokian uzteko. Ikasleek erreleboka hartuko dute parte. Errelebo bakoitzean ikasle bakoitzak bi lokotx hartuko ditu. Aurrena bat hartu beharko du, saskian sartu eta gero beste lokotx bat hartu, era berean jokatzeko. Ondoren, beste taldekide bat

aterako da gauza bera egitera. Horrela lokotx guztiak bildu, saskian sartu eta berriz irten beharko dira partehartzaileak lokotxak saskitik atera eta lehen zeuden tokian uztera.

- Kirolari bakoitzak gehienez, 3 errelebo egin ditzake
- Lokotx arteko distantzia 1mkoa izango da.

- **Zaku erute:**

- Taldekide guztiek hartuko dute parte.
- Talde bakoitzak bere abiapuntu eta helmuga izango du. Toki bakoitzean federazioko arduradun bat egongo da.
- Ikasle bakoitzak 15mko bi luze egin beharko ditu zakua bizkarrean duela. Lehenengo itzulia amaitzen duenean hurrengo taldekideari eman beharko dio zakua eta horrek amaitzen duenean hurrengoari, hamabost errelebo osatu arte. Norbaiti zakua eroriz gero bere bi taldekideek bakarrik jarri ahal izango diote berriz bizkarrean. Zakuen pisua:
 - Alebin mailan: 6 kilo
 - Infantil mailan: 8 kilo
- Kirolari bakoitzak gehienez 2 errelebotan hartuko du parte.
- Luzea ontzat emateko piboteari bira eman beharko zaio.

- **Giza proba:**

- Taldekide guztiek hartuko dute parte.
- Talde bakoitzak bere abiapuntu eta helmuga izango du. Toki bakoitzean federazioko arduradun bat egongo da.
- Ikasle bakoitzak 10mko bi luze egin beharko ditu gurpilaren gainean eta beste bi taldekideek gurpilari tira egin beharko diote, lurretik arrastatuz.
- Aurreneko itzulia amaitzean, helmuga parean gurpilaren gainean doan ikaslean gurpiletik jaitsi eta tiraka doan beste norbait eseri beharko da, bigarren itzulia egiteko; horrela 3 kirolariak txandatuz.
- Talde bakoitzak 15 ibilbide edo errelebo egingo ditu guztira
- Kirolari bakoitzak gehienez, 2 errelebo egingo ditu eserita eta 6 tiraka.
- Luzea ontzat emateko piboteari bira eman beharko zaio.

- **Txinga erute:**

- Taldekide guztiek hartuko dute parte.
- Talde bakoitzak bere abiapuntu eta helmuga izango du. Toki bakoitzean federazioko arduradun bat egongo da.
- Ikasle bakoitzak 15mko bi luzez osatutako zirkuituari eman beharko dio bira, txinga bat esku banatan duela. Ibilbidea oinez egitea derrigorrezkoa da.
- Talde bakoitzak 15 errelebo egingo ditu guztira.
- Kirolari bakoitzak 2 errelebo egingo ditu guztira.
- Txinga bakoitzaren pisua:
 - Infantilak 5 kiloko
 - Alebinak 4kiloko bi
- Luzea ontzat emateko piboteari bira eman beharko zaio.

6. AZKEN OHARRA

Araudi honetan jasotzen ez diren gaietan hauei jarraituko zaie:

- a. 14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
- b. 125/2008 DEKRETUA, Uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- c. 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzkoa
- d. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren 2014ko urtarrilaren 3ko AGINDUA, 2014ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXIII. edizioaren deialdia egiteko dena
- e. Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendariak, 2014ko urtarrilaren 14ko EBAZPENA, 2014ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXIII. edizioaren epaile bakarria izendatzen dena.
- f. Euskadiko Herri Kirol Federazioaren araudiak xedatzen duenari.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkeru, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.